

FAUNA PUBLIKOA

“Kanada-Quebec edo Erresuma Batua-Eskozia eredu baliogarriak izan daitezke”

Iñigo Urkullu, EAeko lehendakaria (Facebook)

Kita ezazu, kita ezazu



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Jaun Barua iragan apirilaren buruan bezala dabil Iñigo Urkullu azken asteetan, hark bezala present baitu Katalunia; “present espirituan –kantatu nirekin– manka besoen artean” (bis). Ehunka polizia atera direnean katalanak masakratzera, nazioartea asaldatur eta, sumatzen dut, lehendakariari bozka eman zioten euskal herritar asko ere bai; orduan, momentu preziso horretan, erditu du komunikatu bat, antza handia daukana agure-aurpegia daukaten jaioberriekin.

Beste zerbait espero zen. Quebec edo Eskozia, errepasatzen dugu testuan pixka bat harrituta; baina Espainia izan gabe Kanada edo Erresuma Batua. Espainia izanda Espainia testikular hau. Espainia izanda jendeen gaintetik pasatzeko begiramenik ez duen martimuilto bat. Hori ezin dela badaki Urkulluk. Hori ezin dela badaki, partiduaren minutu honetara iritsita, emaitzari begiratzen dion edonork.

Baina gero beste partidua dago, letra larriz idazten dena, Alderdia, eta klaro, etxe horretan zenbakiak beste zerbait diote: Madrilgo giltza eskuan, Hego Euskal Herria poltsikoan eta bizpahiru urte aurretik zukua ateratzeko. Kataluniako errebolta demokratikoa da, epe motzari begira ari diren jeltzaleentzat, desordutan etxera bisitan datorren lagun hori; ez diozu atea muturrean itxi nahi, baina joder, *orain* etorri behar zuen?

Hurrengo asteetan Bartzelonatik etorriko da nahikoa kalapita etxeko politikan egiten direnak eta ez direnak despistatzeko, baina uneren batean Sabin Etxeak fitxa mugitu beharko du. Rajoy babesten jarraituko du? Akaso ez da momentu txarra Jaun Baruari kantuan egindako eskaria errepikatzeko: “Jauna maite banauzu erraiten duzun bezala, kita ezazu, kita ezazu Erregeren zerbitzua; eta maita herria, ukan dezadan plazera”.

EZ HANKA EZ BURU!

